

07/08 IRIZPENA

Konrado Mugertza jn.
Gaizka Gabantxo jn.
Iosu Gangoiti jn.
Javier del Campo jn.
José Ramón Kortabitarte jn.
Gonzalo Larruzea jn.
Pilar Ramírez and.
Raimundo Rubio jn.
Manu Udaondo jn.

Euskadiko Eskola Kontseiluaren Batzorde Iraunkorraren 2007ko ekainaren 20ko bilkurrara bazterrean aipatutako kideak joan ziren. Batzorde horrek adostasunez eman du ondoko irizpena: **Araubide bereziko hizkuntza ikasketen ezarpena eta ikasketa horietako oinarrizko mailako eta erdi mailako curriculuma zehazten dituen dekretu proiektuari buruz.**

Eva Blanco and.
Idazkari teknikoa.

SARRERA

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak Euskadiko Eskola Kontseiluari eskatu dio aginduzko txostena eman dezala araubide bereziko hizkuntza ikasketen ezarpena eta ikasketa horietako oinarrizko mailako eta erdi mailako curriculuma zehazten dituen dekretu proiektuari buruz. Halaber, Aholkularitza Juridikoaren txostena, Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritzaren memoria eta generoaren araberako eraginari buruzko txostena ere igorri dizkio.

AURREKARIAK

Maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak, Hezkuntzari buruzkoak, 59.1. artikuluan xedatzen du hizkuntza ikasketak hiru mailatan antolatuko direla: oinarrizkoa, erdi-koa eta aurreratua.

Abenduaren 29ko 1629/2006 Errege Dekretuak, araubide bereziko hizkuntza ikasketen curriculumetarako oinarrizko alderdiak zehazten dituenak, xedatzen du hizkuntza ikasketen oinarrizko mailak administrazioek zehazten dituen ezaugarriak eta antolakuntza izango dituztela eta erdi mailarako eta maila aurreraturako administrazioek zehaztuko dituzten curriculumetako parte izango diren gutxienezko irakaskuntzak finkatzen ditu. Era berean, abenduaren 29ko 1629/2006 Errege Dekretuaren 2.2. eta 3.1. artikuluek agintzen dutenez, maila bakoitzerako erreferentziatzat hartuko dira hurrenez hurren hizkuntzen erreferentziazko marko europarreko A2, B1 eta B2 mailetakoko gaitasunak.

Beste alde batetik, ekainaren 30eko 806/2006 Errege Dekretuak, hezkuntza sistemaren antolamendu berria aplikatzeko egutegia zehazten duenak, 20. artikuluan xedatzen du 2007-08 ikasturtean abian jarriko direla orokorrean araubide bereziko hizkuntza ikasketen oinarrizko maila eta erdi maila, eta 2008-09 ikasturtean maila aurreratua.

CONTENIDO

Dekretu proiektu honek 11 artikulua, 3 azken xedapen eta 2 eranskin ditu.

1. artikulua Dekretuaren helburua zehazten du: EAEn hizkuntza ikasketak abian jartzea, oinarrizko mailako eta erdi mailako curriculumak onartzea eta maila guztiak gainditu izana egiaztatzen duten agirien balioa eta eraginak zehaztea.

2. artikulua printzipio orokorrak zehazten ditu. 3. artikulua mailak kurtsotan egituratzea, haien antolaketa eta izango duten izena zehazten du. 4. artikulua sarbiderako baldintzak finkatzen ditu eta 5.ak kurtso berean geratzeko edo hurrengora igarotzeko irizpideak ezartzen ditu.

6. artikulua curriculumak definitzen du eta 7.ak erabili beharreko metodologia. 8. artikulua ebaluazioari heltzen dio eta erabili behar diren agiri ofizialak zehazten ditu: ikasketa-espedita eta kalifikazioen aktak.

9. artikulua oinarrizko mailako, erdi mailako eta maila aurreratuko agiriak lortzeko gainditu behar diren proba espezifikoak alderdi orokorrak definitzen ditu. 10. artikulua, berriz, agiri hauen balioa eta eraginak zehazten ditu. 11. artikulua hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleak ikasketa hauen curriculumetara sartzeaz dihardu.

Lehen Xedapen Gehigarriak ikasketa hauek abian jartzeko egutegia ezartzen du. Bigarrenak arautegi garapena baimentzen du eta Hirugarrenak araua indarrean noiz sartzen den zehazten du.

I. eta II. eranskinek hizkuntza ikasketen oinarrizko mailako eta erdi mailako curriculumak jasotzen dituzte, hurrenez hurren.

BALORAZIOAK ETA PROPOSAMENAK

1. Irizpen-gai dugun Dekretu proiektu honek abian jartzen ditu Hizkuntza Eskola Ofizialek (HEO) irakatsitako araubide bereziko hizkuntza ikasketak, eta oinarrizko mailako eta erdi mailako curriculumak ezartzen ditu.

Arau honek partzialki garatzen du 1629/2006 Errege Dekretua EAEn 2007-08 ikasturtean aipatutako bi maila horietan aplikatze aldera. Bere aldetik, Errege Dekretu honek erdi mailako eta maila aurreratuko curriculumen zehaztapenak egin ditu, baina oinarrizko mailakoa autonomia erkidegoen esku utzi du *hizkuntzak ikasteko, irakasteko eta ebaluatzeko erreferentziazko marko europar erkidearen* barruan.

Hartara, **Dekretu proiektu hau marko hori inspiratu duten printzipioen arabera da**, izan ere, ikasleen hizkuntza gaitasunak garatzea bilatzen du metodologia aktiboa erabiliz erabilera egoera praktikoak simulatzeko. Planteamendu honen goiburua hizkuntza gaitasunak garatzea da, eta abantaila bat eskaintzen du, hau da, era bereko erreferentziazko parametroak finkatzen ditu hizkuntza ikasketen mailei eta hauek neurtzeko eskalei dagokienez.

2. EAEn, hasteko badago aplikazio bat, izan ere, Hizkuntza Eskola Ofizialetan irakatsitako gehieneko mailak konparatu ahal izango dira Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren amaieran eskatu daitezkeen mailekin, eta Kontseiluak laster irizpen bat eman beharko du gai honen inguruan Oinarrizko Irakaskuntzetako curriculumari buruzko dekretuaren kariatara.

Halatan, bada, HEOetan gaur arte eman den azkeneko maila, Gaitasun Agiria, alegia, araudi berria bat dator Europako Markoko maila aurreratuarekin (B2), hots, curriculumari buruzko Dekretu proiektuak DBHko ikasleentzat euskaraz ezarri nahi duen berberarekin, eta hori argigarria da. Beraz, aztergai dugun dekretu proiektu honek erreferentzia garrantzitsu bat ematen digu araubide orokorreko ikasketetako hizkuntza mailen inguruan eta, partikulariki, derrigorrezko etapetan.

3. Bai Errege Dekretuan bai Dekretu proiektuan mailak kurtsoan egituratzen dira. Erdi maila eta maila aurreratuaren multzoa 3 edo 4 kurtsoan emango da, hizkuntzaren arabera, eta, salbuespen gisa, bost kurtso izatera ere irits daiteke arabiera, txinera eta japonieraren kasuetan, zailtasuna handiagoa baita. Beste alde batetik, **Dekretu proiektuak**, bere eskumenen barruan sartzen denez, oinarrizko mailan bi kurtso egongo direla zehazten du.

Laburbilduz, 3.2. atalak **zehazteko uzten du zenbat kurtso egongo diren hizkuntza bakoitzaren erdi mailak eta derrigorrezko mailak osatzen duten multzoan**, ez du zehazten zein hizkuntzatan izango diren hiru urte eta zeinetan lau, ezta ere azkenean benetan gauzatuko ote den bosteko salbuespena lehen aipatu ditugun hiru hizkuntzetan.

Zehaztu balitu, agerian zegokeen ikasteko denboraren iraupen jakin batekin lotutako kontzeptu guztien arteko erlazioa: kurtso, azpimaila (A1, A2, B1.1, B.1.2, etab.) eta ikasturtea, kasu orokorrean bat datoz eta.

Zehaztu gabe uzten den aukerari dagokionez, azkenean hizkuntza baterako lau urteko formula hautatuz gero erdi mailak eta maila aurreratuak osatutako multzorako, horrek berekin ekarriko luke egungo ikasketak urtebete luzatu beharra –bost urte izatetik sei urte izatera-, hortaz, ondorioak izango lituzke irakasleen lanpostuen zerrendetan eta ikasgela kopuruan; dena dela, hori urte batzuk barru gertatuko litzateke. Gai honen inguruko erabakirik ez dakarrenez, proiektuarekin batera datorren Memoriak dio irizpen-gai dugun Dekretu honek “bere izaera dela eta, ez duela eduki ekonomikorik”.

Ikasketa hauen iraupena zehazte aldera, egokia zatekeen kurtso bakoitzeko ikastorduak finkatzea.

4. 3. artikuluan, Dekretu proiektu honek Errege Dekretua garatzen duen tokian, **3.3. eta 3.4. puntuak nahasgarriak dira**. 3.3. puntuan esaten da kurtsoaren iraupena alda daitekeela “jakintza maila baten programazioa betetzeko behar den denboraren arabera”. 3.4. puntuak honela dio: “kurtsoen iraupena alda daiteke hizkuntza bakoitzaren berezitasunen arabera”.

Bi horiekin batera jarri behar da 3.8. atala ere, honela baitio: “ikasketa hauen antolaketa izan daiteke urtekoa, lauhilekoko, hiruhilekoko, edo on line erdi presentziala”, bestalde, 5.2. atalak arautzen du zenbat denbora eman dezaketen gehienez ikasleek maila jakin batean, hau da, lau urte oinarrizko mailan, eta erdi mailak eta maila aurreratuak osatutako multzoan “hizkuntza bakoitzerako zehaztutako urteen bi halakoa”, esapide hori Errege Dekretuan erabiltzen den berbera delarik.

Laburbilduz, Dekretu proiektu honek planteatzen du “kurtso” hitzak –mailak kurtsotan banatzen dira, oinarrizko maila bi kurtsotan, eta erdi mailak eta maila aurreratuak osatutako multzoa, berriz, hirutan, lautuan edo bostetan- ez duela izango iraupen finkorik, aitzitik, bi faktoreren arabera litzateke iraupen hori:

- “jakintza maila baten” programazioa betetzeko behar dena
- hizkuntzaren zailtasuna.

Lehenengo gaiari dagokionez, uste dugu kurtsoak eskola egutegian izango duen iraupena edo banaketa 3.8. atalean jasota dagoela, eta gehiago argitze aldera, haren hasiera alda liteke honela esateko: “ikasketa hauen antolaketa izan daiteke urtekoa, lauhilekoa edo hiruhilekoko”. Bakarrik horrela justifika daiteke iraupen desberdina izatea, ezen ez irakasleen programazioetan oinarriturik, izan ere, hauek I. eta II. eranskinetan jasota dagoen curriculumaren –mailakoa eta azpimailakoa- aplikazioa eta garapena dira. Horrenbestez, 3.3. atala kendu behar da.

Izatez, 5.2. xedapenean inplizituki jasotzen da 3.3. atalak saihesten duen baliokidetasuna: urtetan jartzen du zenbat denbora eman dezaketen gehienez ikasleek maila jakin batean, eta testutik ondorioztatzen da kurtsoa eta urtea baliokideak direla, aurreko paragrafoan jasotako salbuespena salbu.

3.4. atalari dagokionez, ikasleek erabili ohi duten hizkuntzaren eta ikasten denaren artean dagoen urruntasun linguistikoa dela medio zailagoa gerta liteke hizkuntza bat, eta ezaugarri hori jasota dago 3.2. atalean, eta hau aipatua izan da erdi mailak eta maila aurreratuak osatutako multzoaren iraupena hiru, lau edo bost urtekoa izango dela zehaztean. Ez da egokia beste desberdintasun bat egitea kontzeptu beraren inguruan, beraz kentzeko eskatzen dugu.

5. Curriculumak zehazteaz ari garela, hizkuntzen erreferentziazko marko europar erkideak erreferentziazko maila erkideak ezartzen ditu, ereduak ematen ditu irakaste eta ikaste prozesuetarako, hala nola eskalak eta jarraibideak ebaluatzeko, eta Dekretu proiektu honek horiek antolatzen ditu curriculum diseinuetan, eranskinean; zehazki, I. eranskinean oinarritzko mailako curriculumak garatzen da, eta horren zati bat bi azpimailetarako da eta beste bat espezifikoa bakoitzerako (A1 eta A2), eta II. eranskinean, berriz, gauza bera egiten da erdi mailako (B1) bi azpimailetarako (B1.1 eta B1.2).

Hartara, curriculumaren garapenaren egitura ez da berdina bi mailetan, eta egokia litzateke berdina izatea. Nolanahi ere, garapen hau bat dator marko erkideak emandako jarraibideekin eta bete egiten du Errege Dekretuak xedatutakoa, hala ere, oinarritzko maila eta erdi maila programazio bide desberdinetatik doaz, hemen zehaztuko ez baditugu ere; ez gara sartuko curriculumaren sekuentzia antolatzeko erarik aiposenari buruzko xehetasun teknikoetan, betiere antolaketa hori gaitasunen garapenean –kasu honetan hizkuntza gaitasunak- oinarritutako eredura egokitu behar delarik, baina espero zitekeen Dekretu proiektu honek eredu bakar bat aurkeztuko zuela bi mailetarako.

Irakaskuntza arautuko edozein egoeratan curriculumari buruzko dekretuek aginduzko funtzioa izaten dute artikuluz guztietan, horregatik, eduki, helburu, trebetasun eta gaitasun bakoitza zehazteak aparteko balioa du, hortaz, horien neurria eman behar da testuan. Hartara, **bi mailetan curriculum egitura desberdina izatea** oztopo bat da sartutako aldaketan zentzua irakasleei azaltzerakoan. Dekretu proiektu honek jasotzen dituen kontzeptuak konplexuak dira berez, eta lan handia egin behar da ikastetxeetan egin beharreko aldaketak hitz xehez adierazteko.

Alde positibotik begiratuta, hizkuntzen irakaskuntzan, markoarekin batera datozen mailak ebaluatzeko eskalak ditugu, eta horiek segurtasuna eta koherentzia ematen diote programatutakoari eta abiapuntuetako bat izan daitezke irakasleek egin beharreko gogotari begira.

6. Proiektu honen alderdi zehatz batzuei buruzko iruzkina egin dezakegu:

- 8.3. artikuluan esaten da modalitate presentzialeko ikasleen ebaluazioa ikasturtearen amaieran egingo dela eta ikasleen gaitasunak neurtuko dituela programazio didaktikoetan ezarritako helburuen arabera. Dekretu proiektu honek azpimailen helburuak zehazteko erabiltzen du eranskinetako zati bat. Ildo horretatik, uste dugu azpimailaren erreferentzia estandarizatua erabili behar dela ebaluazioaren mailak finkatzeko, ezen ez erreferentzia horren atzetik datorren irakasleen programazio didaktikoa. Adibidez, oinarrizko mailan bi kurtso daude eta haren curriculum A1 eta A2 azpimailetan banatzen da, bada, lehen kurtsoan matrikulatutako ikasleak ebaluatzeko erreferentzia I. eranskinak A1 azpimailarako zehaztu duena izango da, eta ez programazio didaktikoa. Eta honek berdin balio du A2, B1.1 eta B1.2 azpimailetarako.
- 9.8. artikuluan, zentzurik ez duen esapide bat dago: "...agiri ofiziala lortzeko probak menderatzeari buruzkoak izango dira eta trebetasunen arabera diseinatuko dira gaitasun maila neurtzeko...". Aipamen honek zerikusia du maila bat osorik gainditzeko ez duten ikasleei agiri batzuk emateko aukerarekin. Errege Dekretuaren (4.4. artikulua) formulazioan baldintza bat jartzen da: "probek ebaluatzen dituzten trebetasun batzuk behar bezala menderatzea". Aurkeztutako proiektuan, ordea, "menderatze" eta "trebetasun" kontzeptuek beren esanahia galtzen dute.
- Idazkera kontuak:
 - 3.7. artikuluan, "horiez gainera" jartzea falta da: "arabiera, txinera eta japonieraren kasuan, horiez gainera, 3. Maila Aurreratua".
 - 4.3. artikuluan, subjektuaren eta aditzaren arteko komunztadura falta da, bata singularrean edo pluralean bada bestea ere bai. Ez da zuzena "dagoen ikasleek... ahal izango du...".
 - 7.1. artikulua amaieran zerbait falta da. Hauxe jartzen du: "...ikastearen ardura du. "Eginez ikastea". Lokailua falta da: "...ikastearen ardura du, "Eginez ikastea" printzipioari jarraituz" edo horrelako zerbait.

Irizpen hau zure erabakiaren menpean geratzen da.

Bilbo, 2007ko ekainaren 29a

IDAZKARI TEKNIKOA,

Sinaturik: Eva Blanco

Ikus-onetsia

KONTSEILUBURUA,

Sinaturik: Konrado Mugertza

EUSKO JAURLARITZAKO HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA
SAILBURUA.